

# Ferrante literatura izena da

Alex Gurrutxaga

Ikazleen ikusgarritasuna hain handia den garaioan, berezia da bere identitatea ezkatuzten duen idazle bat. Orain hogei urte hasi bazen ere argitaratzen, ez dakigu nor den Elena Ferrante –berau goitizenaz du zurrerik–. Edonola ere, horrek ez du eragotzi bere obra zabaldu izana: hainbat hizkuntzataraz itzuli dute, harrera oso ona eduki du, eta Italian urteko literatura fenomenoak da Roberto Saviano Strega sarietarako izendatu ondok. 2011 eta 2014 artean tetralogia bat argitaratu zuen, eta *Adiskide paregabea* da, hain zuzen, obra luze horren lehen atala. Euskaraz irakur dezakegu orain, Fernando Reyren itzulpenean.

Bi haur dira nobelako protagonistak nagusiak. Lila –zapataria- ren alaba –eta Lenu, Napoliko auzo batean sortuak, 1944an. Nobela gaur egunean abiatzen da: Lila desagertu egin da, eta Lenu, hori jakitean, euren bizitzan non-

dik norakoak kontaktzen hasten da –analepsi luzea da, beraz, kontakizuna–. Hiru atal ditu nobelak: lehena, oso laburra, orainaldian, Lilaren desagertapenaren berri emanez; gainerakoa iragan garaiei buruzko oroitzapenek osatzen dute. Bigarren atala haurtzaroz mintzo da, eta hirugarrena, *Zapatzen historia*, nera-bezaroz.

Pertsonaien karakterizazioa da azpimarratu beharreko alderdi



## 'Adiskide paregabea'

Egilea: Elena Ferrante. Itzultzailea: Fernando Rey. Argitaletxea: Igela.

bat –ia nobela psikologikoaren ildoan–. Bi haurrak heltzen ari dira, eta euren mundua eta euren barrua nola aldatzen diren ikusten dugu: lagunarteko tirabirak, eskola, aurreneko sexu harremanak, eta abar. Lila, hasierako Goetheren aipuak iradokitzen duen bezala, pikarorea da, Lenu kitzikatzen duena. Harreman estu orok bezala, ertz asko ditu bi haurren artekoak –maitasuna, jelsia, gozotasuna, tentsioa–, eta horiek guztiak islatzen ditu Ferrantek.

Baina inazioz nobela baino gehiago da *Adiskide paregabea*. Izan ere, pertsonaien karakterizazioarekin batera, Napoliko jendartearen erretratuak da nabarmentzen dena –ez alferrik, espazio nagusiak islatzen ditu Ferrantek. Inoiz gehiegi kontatu gabe, pixkana-pixkana, argazki konplexua osatzen du egileak: politika, historia, botere harremanak eta erlijioa azaleratzen dira pertsonaien bitartez. Eta, oroz gain, gaizkia ikusten du Lenu bere inguruan, ezin beltzagoa den gaiz-

kia: indarkeria, bortxa eta matxismoa dira nagusi, justizia kolpeka egiten da, eta nahikoa dira zapata berri eder batzuk inguruko paisaiaren hondamen eta miseria nabarmentzeko.

Kontateknika oso orekatua da, nahiko klasikoa: ordena kronologikoa, tempo konstantea, eta bi protagonistei jarraitzen dien fokalizazioa. Kapituluak laburrak eta oso bisualak dira. Batez ere egilearen kontatzeko ahala ikusten da. Narratzailea, Lenu, lekuak da, eta horrela, pertsonaiaren barne mundua bistan jartzen zaigu. Aldi berean, idazleak sotilki nahasten ditu Lenu bere begiz ikusi duena eta Lilak kontatu duena; horrela, kanpoko mundua ere modu konplexuan birsortua dago.

Azken finean, fikzioak, errealista izan zein fantastikoa, munduak sortzeko ahala dauka, eta horixe egiten du Elena Ferrantek literatura: mundu aberats eta sinetsuak, nabardurak eta kolorez beteak loratzen da *Adiskide paregabea*-n, liburu itxi ondoren ere irauten duena. Gainera, nobelaren amaierak, ona ez ezik irekia izanda, hurrengo atalen gogoz uzten du irakurlea.



## 'Metro'

Egilea: Beatriz Txibite Ezkieta. Argitaratzailea: Arabako Foru Aldundia.

Ernestina de Champourcin poesia sariketa irabazi zuen iaz egileak, euskarazko atalean, orain Arabako Foru Aldundiak argitaratu duen bilduma honekin. «Poema bilduma orekatua da», adierazi zuen epaimahaia. «Batzuetan, intimismoa nagusitzen da, eta, beste batzuetan, indar handiko barne espresioa».



## 'Areces. Bilaketa baten historia (1937-2014)'

Egileak: Iñaki Egaña, Jimi Jimenez eta Cristina Martin. Itzulpena: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzua. Argitaratzailea: Gipuzkoako Aldundia.

# Britainiar zaleentzat

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Irakurleak maite badu XIX. mendeko giro gotikoa, laketa bazaio jauregi amaigabeetako korridoreetan galtzea, bada, ziurrenera gozamen handia sortuko dion liburua da hau.

Protagonista, izenburuak dioen legez, Ada Goth da, Lord Goth aita poetarekin bizi den haurra. Giro erabat aristokratikoan bizi da, neskame eta zerbitzariz inguratuta, gela zenbakaitzeko jauregi misterioz batean, lorategi sekretuekin eta debekatutako lekuekin. Ada haur jatorra da, eta etxeko gainerako haurrak, zerbitzari kastakoak eta abar, adiskide ditu.

Jada bigarren abentura dugu hau, eta aurrekoaren bertute eta ahaludeak ikusten dizkiot: este-

tika asko zaintzen duen obra da –goraipagarriak dira ilustrazioak–, atal bakoitzean motibazioa igoko duen ezusteko edota antzeko trikimailuz josia dagoena, baina hari nagusia ahula eta nahasgarria duena, bereziki irakurle hasiberriarentzat. Hain zuzen ere atal berri honek, aurrekoak bezala, bide eginez ematen du atsegin handiena, hari nagusitik apur bat aldentuta, albo kontuetan.



## 'Ada Goth eta Ilargi Hilaren Jaialdia'

Idazle eta ilustratzailea: Chris Riddell. Ilustratzailea: Aitor Arana. Argitaletxea: Ibaizabal.

# Birzikla dezagun

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Narrazio irakurterraz eta arin honek oso modako bai gai uzartzen ditu: haurren beldurrak eta birziklatzea. Fokua beldurretan jarrira egiten du aurrera kontakizunak, eta zaborra ingurukoak testuinguruak eskaintzen dizkigu.

Gorka protagonista amarekin bizi da, eta ama oso pozik dauka, asko laguntzen omen duelako etxean. Zaborra ere berak jaitsi nahi izaten du. Badu hala ere Gorkak zeregin horrekin kezka handi bat, iruditzen baitzake edukiontzietan bera hainbeste beldurtzen duten munstroak bizi direla, eta, jakina, edozein hurbiltzen da dardarizo bat sentitu gabe. Hala ere, bai txintxoa gure Gorka, saiatuko da zaborrontziko munstroa ezagutzen.

Kontakizunaren indar guztia


edukiontzi urdineko munstroak hartzen du (bai, munstro bat dago bertan). Harekin hizketan hasten da Gorka, eta poliki-poliki bien artean adiskidetasun harreman bat sortuko da.

Pena da hasieran proposatutako gaiari ez zaiola heltzen, eta hurren ordez irudimenezko ariketa bihurtu batekin aritzen garela, baina behintzat kontakizun umoretsu eta irakurterraz da.



## 'Munstro bat edukiontzian'

Idazlea: Maribel Aiertza. Ilustratzailea: Belatz. Argitaletxea: Elkar.



## 'Karmel', 289. zenbakia

Argitaratzailea: Euskal Herriko Karmeldarrak.

Iñaki Sarriugartek Andolin Eguzkitzari buruz idatzia da aldizkariko lehen artikulua. Anttonmari Aldekoa-Otalora, Juan Mari Arrizabalaga, A. Olea, Luis Baraiazarra, Patxi Juaristi, Miren Agur Meabe, Joseba Aurkenerena eta Juan Manuel Etxebarria dira ondorengo lanen egileak.